

Cabestany: «Gizen samar nago eta mendateak iristean nabarituko dut»

Atzo irabazteko itxaropena bazuela adierazi zuen Vueltako liderrak

Pello Ruiz Cabestanyk berriz ere jantzi du liderraren maillot horia Vueltan. 1990an, ONCEn zegoela, lidergoa lortu zuen egun berean galdu zuen. Atzo ez zuen inork espero Pellok lidergoa eskuratzetik, ezta Gatoradek taldekako erlojupekoa irabazterik ere. Baina Cabestanyk bere helburua lortu du.

JEREZ

Pellok konfidantza handia zuen Gatoradan taldekako erlojupekorako, nahiz eta arerioak maila handikoak izan: «Bagenekien ONCE eta Clas bezalako talde indartsuak zeudela, horregatik zaila zen garaipena lortzea. Hala ere, guk itxaropen handiak genituen etapa irabazteko, erlojupekoetan talde sendoa dugulako. Gu bete-betea atera gara, lan handia egin dugu eta horren fruitua garaipena izan da».

Esperientzia berrien atzetik zebilen Pello eta Gatoradekin kontratua sinatu zuen. Donostiarrak bere taldekideen lana goraiatu zuen. «Taldekideek errelebo bikainak egin dituzte. Nahiz eta indar gutxirekin ibili, ahal zuten guztia eman dute erreleboetan. Norberak bere esperientzia jarri du, asko hitzegin dugu erlojupekoaren aurretik eta horrek etekina eman du. Lasterketa aurretik pautu batzuk jarri ditugu eta horiek jarraitu ditugu».

Orain bi urte Vueltako maillot horia jantzi zuen donostiarrak. «Goiz bat egin nuen lider bezala. Une hartan taldearen taktikak hori eskatzen zuen». Orduan behala galdu zuen eta aurrean ez dirudi luzaroan soinean eraman-



Pello Ruiz Cabestany, bi urte eta gero berriz Vueltako lider.

go duenik lider maillota: «Gu gustora gaude lortu dugunarekin eta saiatuko gara hobetzen ahal dugun guztia. Ni ez nago erabaf ondo, oraindik piskat gizen duta nago eta. Pisu gehiegirekin nabil eta hori mendian nabaritu egingo dut».

TALDEA OSO ONDO Marco Giovannetti italiarra oso pozik zegoen Jerez de La Frontera taldeko helmugan. Taldekako erlojupekoan Gatorade izugarri ondo aritu zen, eta bazegoen horren gustora egoteko arrazoirik. Dena den, Giovannettiren esanetan oraindik hasiera besterik ez

da eta hurrengo egunetan zer gertatzen den ikusi beharko da. «Taldea oso ondo egon da erlojupeko guztian zehar, eta horren ondorioz garaipena ere lortu dugu. Hala ere, hasiera da oraindik eta ikusi egin behar zer gertatzen den aurrerantz».

Duela bi urte, 1990ean, Marco Giovannetti izan zen Vueltako irabazlea. Orduan italiarra ez zen faboritoen artean agertzen, baina lehen postuari amaierara arte eustea lortu zuen. Oraingo honetan ere gauza bera gertatzea gus-tatuko litzaioke, Pello Ruiz Cabestanyk irabaztea hain zuzen ere.



Abdouljaparov (Carrera) izan zen azkarrena goizeko sprintean.

Sailkapenak

Étapako sailkapena

Aurreneko saioa

1. Abdouljaparov (Ca) . 3.42.28
2. Jelle Nijdam (Buckler) . d.b.
3. Nico Verhoeven (PDM) . d.b.
4. Uwe Raab (PDM) d.b.
5. Fabio Baldato (GBMG) . d.b.
6. A. Gutiérrez (Artiach) .. d.b.
7. M.J. Domínguez (Clas) . d.b.
8. C. Moreda (Mavisa) d.b.
9. Jesper Skibby (TVM) .. d.b.
10. M. Hermans (Lotus) d.b.
11. S. M. (Mercatone) d.b.
12. Pedro Silva (Sicasal) d.b.
13. S. Zanatta (Gatorade) ... d.b.
14. R. Verdonck (Gatorade) . d.b.
15. Oleg Tchujda (SEUR) .. d.b.

7. T. Rominger (Clas) ... 35era
8. A. Camarillo (Clas) d.b.
9. Fede Etxabe (Clas) d.b.
10. Jon Unzaga (Clas) d.b.
11. M.J. Domínguez (Clas) . d.b.
12. Iñaki Gaston (Clas) d.b.
13. A. Gonzalez (Clas) d.b.
14. F.J. Mauleon (Clas) . d.b.
15. Fabio Rodriguez (Clas) . d.b.
16. J. Bruyneel (ONCE) ... 37ra
17. M. Mauri (ONCE) d.b.
18. Alex Zulle (ONCE) d.b.
19. S. Hodge (ONCE) d.b.
20. A. Fuerte (ONCE) d.b.

Sailkapen orokorra

1. Cabestany (Gato) ... 4.31.57
2. A. Chiurato (Gatorade) . 03ra
3. Giovannetti (Gato) 15era
4. M. Scirea (Gatorade) .. 16ra
5. M. Mauri (ONCE) 21era
6. Alex Zulle (ONCE) 26ra
7. T. Rominger (Clas) d.b.
8. Verdonck (Gatorade) .. 32ra
9. S. Zanatta (Gatorade) .. 36ra
10. Fabio Parra (Amaya) . 41era
11. Garmendia (Banesto) .. 42ra
12. J. Bruyneel (ONCE) ... 49ra
13. P. Delgado (Banesto) ... d.b.
14. Juan Llaneras (ONCE) . d.b.
15. Raul Alcalá (PDM) ... 51era
16. S. Roche (Carrera) 52ra
17. Iñaki Gaston (Clas) d.b.
18. Lale Cubino (Amaya) .. d.b.
19. A. Fuerte (ONCE) d.b.
20. J. Nijdam (Buckler) 53ra

Bigarren saioa (taldeka)

1. Gatorade 37.51
2. Clas Cajastur 35era
3. ONCE 37ra
4. Banesto 43ra
5. Amaya 44ra
6. Carrera 54ra
7. TVM 1.02ra
8. PDM 1.05era

Bigarren saioa (banaka)

1. Cabestany (Gatorade) . 37.51
2. Giovannetti (Gatorade) . d.b.
3. M. Scirea (Gatorade) ... d.b.
4. A. Chiurato (Gatorade) . d.b.
5. R. Verdonck (Gatorade) . d.b.
6. S. Zanatta (Gatorade) .. 13ra


Manolo Saiz: «Zorigaiztoari aurre egiten jakin izan du gaur ONCEk»

JEREZ

ONCE taldeak, atzoko erlojupekoa irabazteko faborito nagusiak, ez zuen suertetik izan. Herminio Diaz Zabalak eta Miguel Angel Martinezek lehenik, ondoren Neil Stephensek, zulatua izan zuten. Eta Gatorade baino 37 segundu gehiago behar izan zituen Manolo Saizen taldeak 32 kilometroak betetzeko, hirugarren postuan. ONCEko zuzendariak baina, bere korredoreen lana goraiatu zuen. «Egia esan

beharra dago beti, eta gaur zultuek adinako kaltea egin digu haizeak. PDM, ONCE eta Buckler taldeek askoz egoera okerragoan egin behar izan dugu erlojupekoa, haizeak gogor jo delako etapa amaieran. Baina nire mutilek oso ondo erantzun dute, egoera zailari aurre eginez, eta gustora nago beren ahaleginarekin. Denbora ez da hasieran uste bezain ona izan, baina taldekako erlojupekoa nola joan den ikusirik, gustora hartzeko modukoa bai».

Gatorade taldearen garaipenak ez du gehiegi kezkatu Manolo Saiz. Giovannetti edo Cabestany, kasu, ez bait dira Madrilerako horiz jantzita iritsiko, ONCEko zuzendariaren esanetan. «Gaur gure etsai handiekin ez dugu denborarik galdu. Gatorade talde indartsua izan arren ez bait du Vueltan irabazteko moduko txirindularirik, nire ustez. Taldekako erlojupekoa aproposa zen guretzat aldea ateratzeko, baina izan dugun zorte txarrekin, ez da emaitza txarra izan».



JEREZ DE LA FRONTERA-CORDOBA izango

da Vueltako hirugarren etapa. Ibilbidea erabat laua da eta etapa nahiko lasaia espero da. Andaluzia aldean egiten ari den bero handiak gogorak egingo ditu Cordobara arteko 205 kilometroak. Ihesaldi luzeak egiteko eta sprintean heltzeko ihardunaldi aproposa da. Haizeak lasterketaren erritmoa aldaerazi dezake.